

Euskaltzaindiak antolaturik eta Bilbao Bizkaia Kutzak babestuta 1991.eko sariak hurrengook izan dira, hots:

1. **Resurrección M.ª de Azkue saria:** *Narrazio eta Poesia. Maila bitan banatua, adinaren arabera, 10-17 urteetako gazteentzat (*)*.

Epaimahaikideak: Jose Antonio Retolaza,
Carmelo Etxenagusia eta
Juan Luis Goikoetxea.

Sarien-irabazleak:

A. Txikiak:

1. Unai Goti Elordi.
2. Yolanda Larreategi-Maider Olabarria.
3. Ana Urizarbarrena.

B. Nagusiagoak:

1. Aitor Sarriegi Galparsoro.
2. M. Jesus Garcia Berasategi.
3. Unai Intxaurreaga Pujana.

(*) Sariok Bilboko Arriaga antzokian, 1991-XII-21ean, banatuak izan ziren.

2. **Txomin Agirre saria (*)**:

Epaimahaikideak: Xabier Gereño,
Felipe Juaristi eta
Arantza Urretabizkaia.

Sari-irabazlea: Jean Irigaray: *Amazonen Deia. I Pedro Urzua.*

(*) Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, banatua izan zen. Milioi bat pezetakoa.

3. Toribio Altzaga saria (*):

Epaimahaikideak: Daniel Landart,
Patri Urkizu eta
Eugenio Arozena.

Sari-irabazlea: Luis Haranburu Altuna: *St. Cyran (Jainkoa gorderik).*

(* Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, banatua izan zen. Seiehun mila pezetatakoa.

4. Felipe Arrese y Beitia saria (*):

Epaimahaikideak: Bitoriano Gandiaga,
Mikel Lasa eta
Juan Mari Lekuona.

Sari-irabazlea: Xabier Lete: *Zentzu antzaldatuoen poemategia.*

(* Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, banatua izan zen. Seiehun mila pezetatakoa.

5. Mikel Zarate saria (*):

Epaimahaikideak: Andolin Eguzkitza,
Adolfo Arejita
eta Alfonso Irigoien.

Sari-irabazlea: Patri Urkizu: *Agosti Chaoren bititza eta idazlanak (1811-1858).*

(* Saria Euskaltzaindiko egoitzan, 1991-XII-27an, babatua izan zen. Zortziehun mila pezetatakoa.

EUSKALTZAINDIAREN ETA *BILBO BIZKAIA* KUTXAREN LITERATUR SARIAK

1992-VI-25

Juan Mari Lekuona

Ohore eta eregin handiko gertakaria dugu gaurko saribanaketa hau. Egun indarrean dauden lehiaketen artean, zaharrena bide da gaurkoa euskal literatura-
ren oraintsuko esparruan. Eta zaharrenetarikoa izate honek beste ikuspegi bat
ematen dio sari honi: hiru bat belaunaldiko literaturgile puntakoak ditugula
gogoan, zerrenda luze eta garrantzitsua osatzen dutelarik sarituen artean. Eta
beste hau ere ahaztekoa ez dena: idazlanak argitaratu izanak, dirutako eskupe-
koak eta zabalkude-ahaleginak dakarten bultzada eta dinamismoa egileentzat eta
literaturarentzat.

Bestalde, gaur saritutakoek euskal letretan duten diztira eta garrantzia ere
azpimarratu beharra dago. Luis Mari Haranburu-Altuna, Xabier Lete eta Patri
Urkizu, izen bat eta heldutasun bat duten idazleak dira hirurok gure artean.
Adinik hoberenean, berrogeitik berrogeita hamar tarte horretan; idazle sarituak,
hala nola "Irun-Saria"-n; idaztaltxor anpatuaren jabe direnak. Izen ona hartzen
du sariketa honek idazleok etortzearekin; eta bultzada bizkorra jasotzen dute
berek ere hemendik, bi erakunde antolatuturiko ekintza honetatik.

...

Euskaltzaindiak ezin du ahaztu idazleen ekarria euskararen bizian eta suzta-
penean. Ez eta ere, jakina, idazleek Euskaltzaindiaren arautaratze lana. Baina
literatur gaiaz ari garenez, azpimarra dezadan literaturak duen garrantzia akademi
erakundearentzat.

Idazleak ez du zertan izan jakitun filologi gaietan. Baina idatziaren poderioz,
ez ikerkuntzaz preseski, badaki zer den zaharkitua hizkuntzan, zer dagoen egosi
gabe oraindik, zerk duen indar eta grazia, zerk duen estetika eta zerk ez duen,
zer den argi eta zehatz, zer kolokako eta erdiesaneko, zein diren orain hemen
hizkuntzari eskatzen zaizkion ahalmenak eta kemenak, jatoritasunak, argitasunak
eta diztirak... Hitz batean, konnotazio mailan prasi luze eta eutsiak dakarren
eskarmentua, jakitatea, ñabardura bizien taupada komunikatzailea. Idazlea da zer
sartu eta kendu azken batean erabakitzeko bidean jartzen duena, aukera beti
herriari utziz.

Bestalde, idazleak egin behar du akademiak erakus dezan zein den idazteko
arategi tajuzko eta egokia zientziaren argitan: eskatu arauak, eta hauek etorrita-
koan, berak betez giro bat sortu eta ekinaren ekinez erakutsi zein den literatura
idazteko molderik egokiena eta emankorra hizkuntzaren biziri begira.

Horregatik ikusten dut oso beharrezko Euskaltzaindiak izan dezan idazleeki-ko ardura. Beste akademietan gurean baino handiagoa da, noski, idazleen kopuru-
a. Gurean ere, arautzeko bilakabidea aurrera doan neurrian, litekeena da gauza
bera gertatzea. Gaur ez, agian. Baina idazleen galbahetik iragazi beharra dago
hizkuntzalariek gomendaturikoa. Horregatik, nahitaezkoa du Euskaltzaindiak lite-
raturgintzaz arreta har dezan, besterik ez bada ere, literatur ikerkuntza hurbiletik
jarrai dezan, eta sorkuntza mundua suzper eta berma dezan.

...

Gaur saritutakook ezagunak ditut eta oso gogoko ere bai! bata herritarra,
bestea ikasle ohia, bestea lankidea literatur irakasletzan. Zerbait otzildu ezazue
nire aburuaren hurbiltasunezko gandua eta lamara.

Asko pozten gaitu Patri Urkizuren aspaldiko ibilpideak. Bordeleko unibertsita-
tean egon zenetik honantz, oso sarturik ikusten dugu ifarraldeko artxibategie-
tan, hango gaietan, hango kultur mugimenduetan. Eta hau ez da oso erraza
guretzat, mugaz-honantzkoentzat. Eta bereziki landu dizkigu hango herri-teatroa,
hango poesia, batez ere herrikoia, eta zeresanik ez bere tesia Urte-ri buruzkoa.
Lanez eta onarpenez, gutxi dira hegoaldean Patrik adinbateko arrakasta dutenak
mugaz-handi. Eta gaur saritzen zaion idazlana ere, ildo beretik doa: *Agosti
Chahoren bitzta eta idazlanak 1811-1858*. Bi azterbide erabili dituela esaten digu
aintzin-solasean: dokumentuena, "agiria lortu dudanean zehazt-mehatz paperera
ekarri dut; eta bigarren, "sortzaileen irudimenak kreaturikoa". Bizitzako xeheta-
sunak, mitologia, politika, hizkuntza...

Dena prosa landu eta aberatsean emana. Hiruzpalau sari jasoa dugu azkenal-
di honetan, saiakera munduan hain zuzen...

Gero, Luis Mari Haranburu-Altuna... Prosalari bizi eta aberatsa. Luzea du
bere liburu zerrenda, teatroa ez delarik, hain zuzen, bere emaitzarik apalena. Hor
ditu, adibidez, "Kriselu" argitaletxean azalarazitako *Zumalakarregi antzertia*, Kri-
selu 1986, *Gernika* (drama historikoa) *Job* deritzan antzerkia, Kriselu 1975...
Beraz, teatroa landu ezezik alor honetatik itxaropen izana da Luis Mari, "Antzer-
ti" ordezkatu zuelarik, "Hil" izeneko idazlana lekuko jarritz, "gaurko literatura
gaztearen azalpen bat" (1972) delakoan, orduko eta garko idazle batzurekin
batera...

Taldearen helburuak ondo adierazten digu Luis Mariren orduko apeta:
"euskal literatura eta kultura inprimatu aurrerakoiaren desarroiloak gaur egun
dituen beharkizunei erantzun bat ematen saiatzen da"... Eta hori izan da Luis
Mari: bereziki antzerkia landu eta lekukotu duena, garaieren garaiko eskaizunei
adi eta sentibera azalduz, eta estetika munduaren miresmena eta kultura duen
idazlea.

Hirugarrenik, Xabier Lete. Euskal Herrian bere herritarrekin, goikoekin eta
behekoekin, komunikaziorik handiena duen poeta, kantuz eta hitzez herriarekin
harremanetan jarri delarik inor ez bezela. Bestalde, aspaldian bere barruko eska-
zizunez poema libururik eskaini ez diguna, jakinminenez gauzalarik aspaldian. Eta
gaurkoa ere, nahiz eta poemategi berezia eta ohargarria gertatu, hau ere lehiaketa
baten eskakizunez aurkezten zaigu eta ez norberak espreski argitaratzeko erabaki
baten ondorioz.

Dena dela, iazko sari honek erakutsi dio bere poesiaren balioa, bere poesi-gintzaren onarpena gure artean, eta nola gaurkoa ezezik argitaratu behar dituen, beste inolako konpromisorik eta eraginik eta aitzakiarik gabe, bere pooema liburuak, luzetsita jotzen dugunez bere ausentzia gure artean.

Alperrikakoa litzateke ni hemen Xabier goraiatzen hastea. Ezagunak zaizkigu bere pentsamentu argiak, sentiberatasun bortitza eta mintzo argi, esanahitsu eta indartsua. Orain jakin nahi genuke non datzan azken urteotako bere emaitza estetikoak, bere ikerketaren eskaintza poetikoa.

...

Euskal idazlea askotan gogogabeturik gertatzen da bere liburuak eduki duen arrabots txikia ikusita. Horregatik, beti da on idazleari ematen zaion bulkoa eta eragin guztia. Betor berriro ere, "Euskaltzaindia Bilbao-Bizkaia Kutxako Saria". Idazle ezagunerik baletor irabazle, ikusiko du nola oraindik arrakastatsu gertatu ohi den bere idazlana, eta adoretu dadila. Eta ezezaguna balitz, berriz, berarentzat litzateke "bejondeizula" beroena eta harreratsuenak, aurkitu duelako bidea, eta euskal letretan hartu duelako bere lekua. Izan ere zerbait da gaurko Saria euskal letretan.

LUIS HARANBURU: *St. Cyran Jainkoa gorderik*, T. Altzaga saria, 1991.

XABIER LETE: *Zentzu antzaldatuena poemategia*, Arrese y Beitia saria, 1991.

PATRI URRIZU: *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak*, M. Zarate saria, 1991.